

Lobiano Gastronomía Elkartea

Duela 7 urte sortu zen elkarte honek, gastronomía kultura sustatu nahi du. Ekainaren bukaeran antolatzen dituen gastronomía jardunaldiak gero eta arrakasta handiagoa dute herrian. Berau da taldearen ekitaldirik nagusiena.



-Zein urtetan sortu zen taldea?

2000. urtean.

-Zenbat kide zarete?

Gaur egun zazpi kidek osatzen dugu taldea. Dena dela, zabalik gaude beste edonork parte har dezan.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Hilean behin elkartzen gara gutxi gora behera eta gehienetan, elkarte gastronomiko batean.

-Zeintzuk dira zuen helburuak?

Batez ere, kalitateko produktuak ezagutu ahal izateko, herritarrei

tresnak eskaintzea. Beste alde batetik, herriko filosofia gastronomikoa berreskuratzen laguntzea, Ermuko elkarte gastronomikoen mugimendua berreskuratzea hain zuzen ere.

-Urtean zeintzuk ekitaldi antolatzen dituzue?

Gure ekitaldirik inportanteena eta oihartzun gehien duena, ekainaren amaieran eta uztailaren hasieran urtero antolatzen ditugun jardunaldi gastronomikoak izaten dira, aste osoko programazioa izaten dute.

Hala ere, urtean zehar produktu gastronomikoren baten inguruko hitzaldiren bat antolatzen dugu eta Ermuko elkarte gastronomikoei txangoren bat ere. Orain arteko txangoak Errioxako upeltegiara izan dira.

-Web orrialde edo zuekin harremanetan jartzeko biderik?

Horretan ari gara, web orrialdea egiten, baina momentuz Torrekua 1. zenbakia (Solozabal estankoa) da gurekin harremanetan jartzeko tokia.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna